

ZABBAALIK!

Koordinatu, antolatu eta kudeatu egiten du!

DEIALDIKO BALDINTZAK

Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultateak ikasleentzako urteroko deialdia ireki du, egungo arte sorkuntzaren edozein alderdiri buruzko jarduerak (hitzaldiak, ikastaroak eta tailerrak, ...) antolatzeko.

Helburua da ikasleek Fakultateko jardueren programazioan parte har dezatela, kudeaketa eta antolaketa lanetan inplikaturik.

Deialdi honetarako **3.000 €** bideratuko dira, gutxi gorabehera.

Deialdi honetan aurrekontuaren erdia laugarren mailako "Sorkuntza Artistikoaren eta Profesionalizazioaren Prozesuak eta Metodologiak" irakasgaiari lotutako proposamenetara bideratuko da, beharrezko kalitatea eta interesa izango balute.

Aurrekontuetan sartu ahal izango dira, behar bezala justifikatuta, gonbidatutako parte hartzaileen ordainsariak, ostatuak eta bidaiak.

Gastuak sar daitezke, ordainsarien kontzeptu gisa, ikasle antolatzaileek egindako kudeaketatik, baina ikasleak ezin izango dira inola ere gonbidatutako parte hartzaileak izan.

Kudeaketatik ordainsariak ezin izango dira inoiz jardueraren aurrekontu osoaren % 15a baino gehiago izan.

Jarduerak gauzatu beharko dira 2026ko ekainaren 30a baino lehen

PROPOSAMENEN GESTIOA

Proiektuak proposamen bakoitzaren arduradunek zuzendu eta kudeatuko dituzte, eta deialdi honetako baldintzak onartzeko konpromisoa hartuko dute.

Unibertsitate Hedapeneko Dekanordetza arduratuko da proposamenak koordinatzeaz: egutegia, sare sozialetako eta webguneko hedapen digitala, etab.

Hauek dira deialdian parte har dezaketenak, banaka edo taldean:

1. Arte Ederren Fakultateko 2025-26 ikasturteko ikasleak.
2. Fakultatearekin lotura izan duten ikasle ohiak, baina 1. paragrafoan aipatutako kideren batek ordezkatuta.

Eskatzaile guztiek bete beharko dute blogean deialdi honekin batera eskuragarri dagoen formularioa: www.ehu.es/ehusfera/bbaa

JARDUEREN AURREKONTUA

Proiektuei dagokien gutxi gorabeherako aurrekontua erantsiko zaie, ondoren adierazten diren zenbatekoak erreferentziazat hartuta.

UPV/EHUren erreferentziako tarifak:

- EAEko hizlariak: 150€
- Estatuko hizlariak: 300€
- Estatutik kanpoko hizlariak: 500€
- Tailerrak: 60€ orduko
- Adierazitakoekin bat ez datorren beste edozein formulak horiek har ditzake orientazio gisa.

Hauek dira aurrekontuan jaso behar diren kostuak: parte hartzaileen garraio, ostatu eta otorduekin lotutakoak, baita material, ekoizpen eta inprenta eta abarrekin lotutakoak ere.

Bidaia eta hotelak UPV/EHUrekin hitzarmena duten agentzien bidez kontratatatu behar dira.

Emandako finantzaketaren izapidetzea:

-Unibertsitateko Hedapen Batzordeak jardueretarako ematen duen zenbatekoa jarduera horiek egiteko bakarrik erabiliko da, hots, ezin izango da beste helburu batzuetarako erabili, eta aurrerago justifikatu egin beharko dira.

-Dekanordetzak fakturetan agertu behar diren datuak emango dizkie jardueren arduradunei, fakturak izapidetu eta kobratu ahal izateko.

JARDUEREN HEDAPENA

Unibertsitate Hedapeneko Dekanordetza deialdian onartutako jardueren web hedapenaz (posta zerrenda, sare sozialak, fakultateko monitoreak) bakarrik arduratuko da eta Agiri Kulturalako programaren parte izango dira.

Arduradunen kontura izango dira beste hedapen mota batzuek (kartel inprimatuak, CDak edo DVDak, katalogoak, etab.) sor litzaketen gastuak, baita fakultatean horretarako ezarritako lekuetan jartzea ere.

Hautatutako jardueren arduradunek konpromisoa hartzen dute Unibertsitate Hedapeneko dekanordeari honako dokumentu digital hauek emateko, gutxienez 10 egun lehenago, horiek gainbegiratzeko eta webgunean zabaltzeko:

- "UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko ZABBAALIK"-ek barne hartu behar duen jarduerari buruzko material grafikoa eta digitala.
- Zerrenda bat, jarduerarekin zerikusia izan eta zabaldu nahi diren estekez –honelakorik bada– osaturikoa.

EPEAK

Deialdia 2026ko otsailaren 10ean (asteartea) amaituko da.

Eskabideak ecultural.bellasartes@ehu.es helbidera bidali behar dira, pdf formatuan eta MB1-etik beherako pisuarekin, eta honakoak bildu beharko dituzte:

1. ZABBAALIK formularioa behar bezala beterik.
2. Jarduera proposatzen duen pertsonaren edo taldearen CV delakoa.
3. Proposamena, aurrekontu xehatua eta jarduerak noiz egin litezkeen.

Unibertsitate Hedapeneko Batzordeak eta azken erabakiak hartuko dituen fakultateko Ikasleen Kontseiluko ordezkariaren batek aztertu eta hautatuko dituzte proiektuak.

Deialdi honetan parte hartzeak berekin dakar deialdiaren oinarriak onartzea eta betetzea.